

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

Euskal irakaskuntzaren
aldeko ekitaldia /08

OSAKIDETZA

Osasun etxe berria
inauguratu dute /09

LEINTZ GATZAGA

Sorginak taldeak urteko
lehen bilera /10



ARATUSTEAK:
JANTZI MOZORROA
ETA KALERA!

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 5
ITURRALDE. Belorrieta, 1 943 79 27 22
DOMEKA, 6
ITURRALDE. Belorrieta, 1 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarteak	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Instituta	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	943 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTZAINGOA

Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK

SOS Deiak	112
Eskaide Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE

PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:30

SANTA RITA

Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN:

LARRIÑO

Domeketan: 12:30

MENDIOLA

Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO

Domeketan: 11:30

OHARRAK

SANTA AGEDA EGUNA

Bihar, zapatua, Santa Ageda eguna ospatuko dute kintoek. Kanean ibiliko dira kantuan eta eskean. 19:00-etan, dantzan egingo dute Herriko Plazan.

ALDARRIKAPENA

Etxi, Aratusteetako domeka euskal preso politikoen estatus politikoa aldarrikatu dute 12:00etatik 14:00etara Durana kanean.

BILERAK KURTZEBARRI Eskolan

Matrikulatze kanpaina dela eta bilerak egingo dituzte Kurtzebarri eskolan. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzakoa hilaren 14an izango dira, 18:00etan euskaraz eta 19:00etan gaztelez. DBHkoa hilaren 16an, 18:00etan.

AIZKORRIKO PARKEAREN GAINEKO HITZALDIA

Aizkorri-Aratz aldeko natura baldintzak antolatuko planaren gainean egingo du berba Eusko Jaurlaritzako Bioaniztasunaren zuzendari Josu Erkiagak hilaren 9an, eguaztena, 19:00etan, udaletxeko ganbaran.

CURTISERA KEPA IKUSTERA

Otsailaren 13an Kepa Urren urtebetetzea da. Horregatik, Coruñaiko Curtisera martxa antolatu dute hilaren 11n, egubakoitza, aterata. Izenematea Urbaltz tabernan.

LORAMENDIRENAGENDA

TABERNENDAKO I. MOZORRO LEHIAKETA

Mozorro lehiaketa antolatu du Loramendi EEK tabernendako. Otsailaren 6an, Aratuste-domeka, izango da lehiaketa, eta baldintza bakarra jarri dute Loramendiko kideek: euskal mitologiarekin zerikusia duten mozorroekin apaintzea taberna, hain zuzen. Sari banaketa domekan bertan egingo dute, 19:30ean, udaletxean.

ORAINDELA 8URTEARETXABALETAN

Igor Dublan 1.500 metroko lasterketan txapelduna

Igor Dublan korrikalariak Gipuzkoako pista estaliko 1.500 metroko lasterketa irabazi zuen 1997ko otsailaren 11n hain zuzen, 3.000 metroko junior mailako Gipuzkoako proba irabazi zuen, eta Euskadiko Txapelketan hirugarren geratu zen.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Labetesu"

Ogia labean egitearen ekintza.
—Ekarri pare bat abar sorta lana-besurako.



JON IRAEGI

LIBURUTEGIKOTXOKOA



BELARRAREN AHOA

Harkaitz Cano
Alberdania, 2004
101 o.

Suposa dezagun Bigarren Mundu Gerra alemaniarrek irabazi dutela. Hitlerrek Europa bere eskutan du, eta orain itsasontziz doa AEBak inbaditzera, sotoan Charles Chaplin atxiloturik daramala. Suposa dezagun, gainera, 1886-an frantses xume batek bidaia bera egin zuela, polizoi, Askatasunaren Estatuaren koroan.

Bi istorio xeble horiek nahastuko ditu Harkaitz Canok nobela baino gehiago ipuin luzea den lan poetiko honetan. Umorea eta karikatuta erabili ditu osagai nagusi askatasunaren aldeko alegoria eder honetan.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

Adi!

EKAINAREN 7tik AURRERA
**Zorion agurrak
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN!**

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Gainera...

Zorion agurrak, SMS bidez!

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, **Asteleheneko Goienkaria**-k beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.



Ondo pasau
Aratusteak!

LEIBARR arrandegia



Mitarte Kalea 1
Tel.: 943 77 13 79


Loramendi 1
Tel.: 943 79 18 33

Aretxabaleta

ATREBENTZIAEZPADA/ Gustetan jatzu mozorroketie? Zertaz mozorrotuko zara Aratuste-domekan?




MAIDER OROBENGOA
7 urte



HILDEGAR COLINO
13 urte



UXUE OLABE
4 urte



IKER PEREZ
2 urte



ANDER MARTIN
8 urte



ENEKO CALVO
4 urte

Bai, oso ondo pasetan dotelako. Domekan, pirata jantziko naz beste lagun batekin eta martitzenien, Almeneko gelako danok Argitxoz mozorrotuko gare; gertu daukou mozorru.

Bai, urtero mozorrotu izen naz, eta aurten be bai. Hala eta be, ondiokan ez dot pentsau zertaz, azkeneko orduen topouko dot zeozer eta jantzi. Eskolan, DBHkuek ez gara mozorroketan.

Bai, asko, eta printzesa jantziko naz. Soiñeko luzeluzie dauket, eta larrosa da. Gero, martitzenien, eskolako lagunekin sorgin jantziko naz, eta kalera urten-go dou kalejiran.

Bai, eta bandolero jantzi biher gare danok: Xabi, aittetxo eta amatxo, Gaizka eta Jone primuek eta tio Luis eta tia Olatz. Gero, Pausokako lagunok sorgin jantzi eta kalien ibilliko gare.

Bai. Domekan bakero jantziko naz beste lagun batekin. Martitzenien, eskolakuek urtengo dou mozorrotute, eta danok Lantzeko Aratustietako pertsonaje jantzitte ibilliko gare.

Bai. Spiderman jantzi biher naz aurten, eta Leire nere ahiztie lehoi jantziko da. Ikastolako lagunekin be mozorrotu biher naz, baiñe ez dakit zein mozorro jantzi biher down.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK ELURRA KENTZEN Elurra zetorrela behin eta berriz iragarrita bazuten ere, ezustean hartu gintuela esango nuke. Larri ibili ziren bai automobilak, bai oinezkoak elurraren eta izotzaren ondorioz. Herritar asko, ostera, kexu, bideak ez zituztelako behar bezala garbitu, eta gutxi batzuk pala hartu eta kale ingurua garbitzen ibili ziren. Lehen ere lan horretan ibilitakoak ziren seinale. /M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Aurtengo udal aurrekontua

Zortzi milioi eurotik gorako aurrekontua onartu zuten udalbatzak. Iazkoa baino %19 handiagoa.

ASTEAN BEHIN /05

Badatuz Aratusteak!

Ospakizun handia izango da Aratuste-domekan herrian. Martitzenean umeekegirotuko dituzte kaleak.

KIROLAK /06

Elkarrizketa: Sebas Roldan

Skate ikastaroa antolatu dute otsailerako Kirol zerbitzuek. Sebas Roldan izango da irakaslea.

ASTEKODATUA

1.000

KILO GATZ BOTA ZITUEN UDALAK JOAN DEN EGUENEAN

Joan den egueanean, urtarrilak 27, 1.000 kilo gatz ekarri zituen Udalak. Egueanean bertan erabili zuen guztia, eta egubakoitzerako gatz barik geratu zen. Astelehenean 2.000 kilo erosi zituen, hurrengorako.

BESTEKEESANA

“Biharamunean bertan, Aretxabaletan, ipuina ikaragarri gustatu zitzaiola eta zorionak eman zizkidan

Xitorrek. Ez zen konplimendu bat izan: mondejuari eragitearen puruz, ageri-agerian zituen babak eskumako eskuan. Egon nintzen esateko ipuina ez zela neurea, baina ze demonio, loria-une hura politegia zen dena pikutara bidaltzeko. Idazle gurako batek ez ditu egunero halako loreak jasotzen. Ixilik egotea hobe.

Xitorri agur esan eta Hirusta tabernan sartu nintzen. Han Etxebe zegoen txaka-pintxo bat jaten: “Hi, leiru naixuen hire atzoko ipuine... A ze beroaldixe! Gaur bertan jinasiuen apuntau bi-nok”. Segituan batu zitzaion Xanpru ere: “Hi, nik bizikletie ixegi juat, ta hemendik aurrera Zainduz-eko saunara fan bi-nok ixerdixek botaten!”.

DIEGO MARTIARTU
‘Gara’/05-01-27

HERRITARRENBERBAK/ Edorta Mendieta



Europa eta konstituzioa

Duela zortzi hilabete-edo Europari buruz jardun nuen tarte honetan bertan. Orduan, Europako Parlamenturako bozketan izandako partaidetza maila baxua izan zen gaia. Europa urruti geratzen zaigu, nonbait.

Egun batzuk barru Europako Konstituzioaren gaineko erreferendum batera deituak izango gara, eta, oraingoan ere, antzerako urruntasun kutsua nabari dut jendearengan. Gaiak inongo garrantzirik izango ez balu bezala.

Bestela, esaniezadazue, zuetako zenbatek duzue Europako Konstituzio horren edukia- ren berri zehatzik? Zuetako nork jaso du informazioa? Zenbatek dakizue testu hori izango dela europarron bizitzak gidatuko dituen lege gorenena? Eta, ondorioz, lege hau izango dela gure etorkizun guztia baldintzatuko duena, estatueta-ko konstituzioaren gainetik? Zenbatek dakizue zer dioen

eskubide sozialak edo zerbitzu publikoen inguruan? Nork gidatuko du gure bizia arlo ekonomikoan? Zer tratamendu ematen die estaturik gabeko nazionalitateei? Nola eragingo dio horrek gaur daukagun autonomia murrizari? Izango ote da gerora gure autogobernu- nuan sakontzeko modurik? Edo, alderantziz, nazionalitateekiko inongo sentsibilitaterik ez duten zenbait estatuk idatzitako testu batek gidatuak izango garelako, okerrera joateko baino aukerarik ez ote da izango?

Badago oraindik gaia garrantzitsua iruditzen ez zaion inor? Informazioa jaso ez izana ez da nahikoa arrazoi etxean geratzeko. Eta telebistan eman dituzten lau iragarki ere ez dira nahikoa informazio iturri iritzi bat osatzeko. Topatu gura izanez gero, informazioa non eskuratu badago. Gero egizue zeun iritzi propioa eta jokoan dagoenaren arabera eman ezazue fundamentuzko botoa”

Badago oraindik gaia garrantzitsua iruditzen ez zaion inor? Informazioa jaso ez izana ez da nahikoa arrazoi etxean geratzeko. Eta telebistan eman dituzten lau iragarki ere ez dira nahikoa informazio iturri iritzi bat osatzeko. Topatu gura izanez gero, informazioa non eskuratu badago. Gero egizue zeun iritzi propioa eta jokoan dagoenaren arabera eman ezazue fundamentuzko botoa. Nik badut neurea.



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Jantzi mozorrue

Gertu dauketzu mozorrue? Domekie bittartien gertatu biherko dozu orduen. Nik gertu dauket. Ez dakit izezko moduko mozorro ikusgarriarik ikusiko douen. Koadrilla batzuk keju egin die diru asko gastetan dauela eta sarixetan gutxi jaso. Neure ustien ez dau zetan egin hain mozorro ikusgarriarik, orijinala izetie da kontue. Eta horretan saietuko die gehixenak. Ia egaldi ona egitten doskun, beste gauza bat izengo da-eta.

Udalak bestalde, banatu dittu aurtengo diruok. Ez dakit danak konforme izengo dien, beti izeten da keje-eta, baiñe behintzet kulturarako dezente gorde daue. Ia gorde bakarrik ez dan, eta zeozetan hasten dien aurtan, aspaldixen gaz eskien herritarrok eta.

Opor kontuek diela eta Madrillen egin dauien Fitur ferixan izen dogu aretxabaletar bat. Ana Heriz da bera, eta mankomunitateko turismo arduradune danez gure ibarraren berri emuten fan zan. Debagoiena gustau eta akaso aurtengo udan turistak barra-barra hurreratuko jaku gure herrire. Ikusi egin biher.

Bittartien ondo-ondo pasau Aratustiok bai domeka, bai martitzena eta ia iñork ez ezauketako moduko mozorrue asmetan dozuen. Ezetz ni ezautu!

UDAL AURREKONTUA/ Diru partidarik garrantzitsuena kultura ekipamendurako izango da: 700 mila euro, hain zuzen

Zortzi milioi eurotik gorako aurrekontua onartu du Udalak; iaz baino %19 handiagoa

MIRARI ALTUBE

Joan den egubakoitzean, aho batez onartu zuen udalbatzak aurtengo udal aurrekontua. Zortzi milioi eurotik gorakoa da, iaz baino %19 handiagoa, eta kultura ekipamendurako gorde du diru partidarik handiena: 700 mila euro, hain zuzen ere.

Udalaren 2005eko aurrekontu osoa 8.215.121 euro da. Iazkoaren aldean %19ko igoera izan du, eta inbertsioei dagokienez %41eko igoera. Inbertsiorik garrantzitsuena kultura ekipamendurako izango da.

KULTURA EKIPAMENDUA

PP, PSE-EE eta EAJko zinegotzi bat ez ziren egon joan den egubakoitzeko osoko bilkuran. Bestalde, Aretxa plataformako 25en bat kide azaldu ziren protesta egiteko. Batutako zinegotziek aldeko botoa eman zioten, eta aho batez onartu zuten udal aurrekontua. Galo Sanchez Ogasuneko zinegotziaren esanetan, %19 igo dituzte Udaleko ohiko gastuak, eta %41 inbertsioak. Hala, kultura ekipamendurako izango da diru partidarik handiena: 700 mila euro, 116 milioi pezetatik gora. Kultura etxea, zinema eta beste hainbat



Kultura etxe, zinema eta beste hainbat gela dituen Herriko plazako eraikina erabat berritu gura dute.

gela dituen Herriko Plazako eraikina erabat berritu gura dute. Hori egin bitartean, baina, kultura etxea Iralabarri plazan jarriko dute, eta hango lokalak egokitzeke ia 270 mila euro erabiliko dituzte. Otolara kalean egingo dituzten

saneamendu eta ur hornikuntza lanetarako, bestalde, 610 mila euro zehaztu dituzte. Udalak, aurtan, Pausoka Haur Eskolako eraikina erosteko asmoa dauka, eta, hala, Udalaren esku dagoen 0 eta 3 urte arteko haur eskolaren eraikina ere

berea izango da. Horretarako 300 mila euroko diru partida gorde du.

ARALAR, GUSTURA

Xabier Sarasua Aralarko zinegotzia gustura zegoen onartutako aurrekontuarekin; hala ere, epeerdiko planifikazioa falta dela esan zuen. Ogasuna Sailean adostutako aurrekontua izan bada ere, beste sail batzuetan ere adostu beharko litzatekeela gaineratu zuen Xabierrek, eta guztiek izan beharko luketela ekarpenak egiteko aukera.

Josu Atxaga Aretxa plataformako kideak ere aurrekontuaren gaineko balorazioa egin gura izan zuen. Dagoeneko urte bi daramatzatela legez kanpo eta aurrekontuaren onarpenean ordezkaritza falta zutela esan zuen Josuk; hortaz, euren botoa erabili egin zutela. Edozelan ere, berba egiteko gertu zeudela adierazi zuen.

Udal aurrekontuarekin batera 2-b sektoreko, hau da, Deba ibaiaren beste aldeko behin-behineko onarpena egin zuten. Bost alegazio aurkeztu zituzten arren, guztiak bota zituzten atzera.

2005erako aurrekontua

Udala	7.864.390 €
Urats-Gain zaharren egoitza	644.292 €
Aretxabaletako Bihargintza SA	108.521 €

UDAL AURREKONTU OSOA
8. 215.121 €

Aurrekontua, batzordeka

Auzoak	313.716 €
Zerbitzuak	1.342.469 €
Lehendakaritza	1.957.563 €
Ekonomia garapena	54.402 €
Kultura	223.325 €
Kirolak	269.487 €
Gazteria	27.711 €
Hirigintza	2.128.106 €
Hezkuntza	80.800 €
Ongizatea	692.431 €
Ogasuna	246.413 €
Hizkuntza normalizazioa	247.052 €
Idazkaritza	181.880 €
Kontsumoa	8.150 €
Udaltzaingoa	31.770 €
Ingurumena	59.115 €
Guztira	7.864.390 €

Inbertsio aipagarrienak

Kultura ekipamendua	700.000 €
Otolarako saneamendua	610.000 €
Pausoka erostea	300.000 €
Arkarazoko errepidea	270.000 €
Iralabarriko lokalak	268.621 €
Proiektuak	150.000 €

Beste partida batzuk

Hirugarren Mundua	39.700 €
Jaiak	107.000 €
Udal Euskaltegia	67.055 €
Urkuluko ura erostea	275.000 €
Lorategi eta parkeak	126.500 €
Zabor bilketa	232.814 €
Etxez etxeko prestakuntza	290.000 €
Kirol etxeko eskaintzak	118.000 €
Kale garbiketa	150.000 €

Iber

★ Loteria ★
✿ Paper denda ✿
✱ Liburuak ✱

Otolara 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Mortin

erloju-denda

Bere bezeroen
zerbitzura

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

PAGALDAI

Opari denda
Lurrindegia

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

Jauregi

Okindegia

Otolara 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

BENGOA

URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

ARATUSTEAK/ Martitzenean ikastetxeetako umeek hartuko diete lekukoa koadrilei

Koadrilen kalejira izango da Aratuste-domekako ikusgarriena

MIRARI ALTUBE

Otsaileko lehenengo aste bukaeran dator Aratuste-domeka; hortaz, mozorroak gertatuta izateko ordua da. Zalantza barik herritarrek girotuko dute eguna, eta koadrilek egingo duten kalejira ikustekoa izango da. Ea eguraldiak laguntzen duen.

Bai koadrilek, bai ikastetxeetako umeek gertu dauzkate mozorroak. Orain, desio bakarra dute guztiek: eguraldi ona egin dezala.

KOADRILAK ETA SANTA AGEDA MUTILAK
Eguaztenez, Garizuman sartzerakoan, penitentzia eta otoitzarako gonbita daukate kristauek. Isiltasunari tartea egin aurretik, baina, jai giroarekin gozatu gura dute, eta halaxe egingo dute domekan. Txarangarekin batera koadrilak izango dira giroa berotzen ahaleginduko direnak, eta benetan mozorro orijinalak izango ditugu ikusgai domeka goizeko kalejiran. Santa Ageda mutilek ere izango dute zeresanik asko domekan: eguerdi partean Txino Dantza egingo dute, eta arratsaldean Herriko Plazan dantzan. 19:30ean mozorro lehiaketako sariak banatuko dituzte Kultura Saileko ordezkariak udaletxean. Aurten, gainera, ohiko sariez gain 100 euroko accessita daukate.

MARTITZENEAN, UMEAK

Aratuste-domekako biharamuna pasatu ostean, martitzeneko jai etorriko da. Ume eta gazte-



ARTXIBOA

Mozorro orijinalak aurkeztu ohi dituzte koadrilek Aratuste-domekan.

txoak izango dira protagonista orduan. Goizean, Pausoka Haur Eskolako umeak aterako dituzte Herriko Plazara Txino Dantza egitera, eta arratsaldean, gainerako ikastetxeetako umeak elkartuko dira. Txarangarekin ibiliko dira kalejiran, eta 17:30ean buruhandien aurretik egin beharko dute korrikari. Berotu barik geratu denak dantzan egin ahal izan-


go du Euskal Disko Festarekin Herriko Plazan. Eta Aratusteei agur esateko, ohiturari jarraituz, Txinoaren Hileta egingo dute 22:30ean. Aurten Santa Ageda mutilak izango dira gainerako herritarrekin batera *txinoari* lagun egingo diotenak. Herritarrek lutoa jantzita eta kandelak eskuan dituztela joan daitezela eskatu du Kultura Sailak.

LABUR

Udaltzain bat behar du Udalak, eta otsailaren 12a bitartean dago zabalik izena emateko epea

Udaltzain postua betetzeko deia BOEn argitaratu zain zegoen Udala, eta joan den egunean, urtarrilak 27, agertu zen. Hala, udaltzain posturako ezarritako baldintzak betetzen dituzten guztiek eman dezakete izena udaletxean otsailaren 12a bitartean. Hain zuzen ere, Jose Nuñez udaltzainak utzitako postua beteko du Udalak, eta herriko laugarren udaltzaina izango da. Baldintzen berri izan gura duenak Udaleko idazkariari dei diezaiola. Azken horren esanetan, gainera, interes handia sortu du lanpostuak.

TXUTXU-MUTXUA



1.600 gida banatuko dituzte Aretxabaletan

Goiena Komunikazio Zerbitzuak egunotan hasi da gida banatzen. 1.600 banatuko dituzte aurten, guztiak Goienkariaren harpidedunen artean. Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Aramaioko enpresa, denda eta bizilagunen telefonoak jaso dituzte gidan. Aste pare bat beharko dituzte banatzeko. Edozelan ere, baten bati ez bazaio heltzen eta interesa badu, pasa dadila ARETXAGAZETAko lokaletik. /M.A.

Bereziki: Harategia Urdaitegia Fruitategia

Ondo pasa
Aratustek!

IMANOL JANARI DENDA

Gorbea kalea 8. ARETXABALETA. 943 79 05 83

Aretz

taberna

"Oilasko erreak eta paellak eramateko"

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Lie

**LURRINGEGIA
OPARI DENDA**

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

**Mobiliario
ARENAZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

BEIRALAN

B

KRISTALDEGIA

Markoztatze
profesionala
prezio ezin hobean!

Herriko plaza 8, beheka • Aretxabaleta
943 79 81 78 / 670 997 274

SEBASTIAN ROLDAN/SKATE IRAKASLEA

"Skatean ikasteko pazientzia behar da, trikimailu batzuk ikasteko pazientzia"

MIRARI ALTUBE

Buenos Airetik etorri zen orain dela hiru urte Sebas, eta kirol-etxeko igerilekuko soroslea da. Hala ere, skatea du gustuko, eta orain, skatean jarduteko oinarriko ezagutzak erakutsiko dizkio ikasi gura duenari.

Zer da skatea?

Kirola da; orain, gainera, joko olimpiar izendatuko dute. Hemen ez da oso ezaguna, eta zer den erakusteko aukera izango dut.

Kirola baino ez da, edo estilo bat ere bada?


Ez, kirola dela esango nuke. Skatean ibiltzen diren askok arropa nasaiak janzen dituzte, egia da, baina hori norberaren kontua da.

Zu zeu noiz hasi zinen?

Orain dela bost urte hasi nintzen, Argentinan; izan ere, han ezagunagoa da, eta izugarri gustatu zitzaidan. Geroztik ahal dudan guztietan jarduten dut skatean.

Dohain berezirik behar da?

Gogoa eta pazientzia, besterik ez. Pazientzia hasieran batez ere, oinarriko trikimailu batzuk ikasi artean. Behin ikasita, benetan gustura egiten den kirola da.



M.A.

Kirola ezagut dezaten ahaleginduko naiz: zelan ibili patin gainera, oinarriko trikimailuak zelan egin... Hau da, ohola zer den esaten hasiko natzaie eta patinarekin non ibil gaitzkeen erakutsiz bukatu.

Gure inguruan badugu leku egokirik skate-zaleendako?

Ez; gainera, herritarrek ez gaituzte ondo hartzen. Arrautzak bota izan dizkigute, iraindu egiten gaituzte... Badakigu gure zatekin gogaitu egiten direla, baina hori ez da modua. Neguan, gainera, barruan ibiltzea komeni da, eta horretarako lekurik ez dugu. Ni Frantziara joaten naiz.

Kirol garestia da?

Bueno... Hasiberriei patin merkea erosteko esango nieke; ikasi ostean izango dute hobe erosteko astia. Nik erosten ditudan oholek 70 euro inguru balio dute, ardatzek 45 euro, gürpilek 20tik gora eta torlojuak 5 euro. Hortaz, atera kontuak...

Zale asko daude herrian?

Askorik ez, baina daudenak sutsuak dira. Arrasateko Arraska taldearen bitartez kirola ezagutarazi gura dugu, gehiago izan gaitzen. Era berean, maila hobea lortzea da gure erronka.

"Herritarrek ez gaituzte ondo hartzen: arrautzak bota izan dizkigute, baina iraindu ere"

Zer erakutsiko diezu ikas-tarora datozei?

ESKIA

Eski irteera antolatu du Murruxiko MEk Luz Ardidenera otsailaren 19 eta 20rako

Murruxiko MEk eskiatzera joateko irteera antolatu du otsailaren 19 eta 20rako. Luz Ardidenera joango dira. Prezio barruan logela, gosaria, afaria, autobusa eta segurudun forfaita sartu dituzte. Bazkideek 90 euro ordaindu beharko dute, eta bazkide ez direnek 95; ikasleek bestalde, bost euro gutxiago. Izena emateko Murruxikoren lokaletik pasatu martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara.

XAKEA

Irabazi egin zuen Arlutz xake taldeak zapatuan, eta hirugarrena da Euskal Ligan

Gasteizko Casalan taldearen aurka jokatu zuen zapatuan Arlutz xake taldeak, eta 1-3 irabazi zion. Liga hasi dutenetik ez dute partidarik galdu, eta dagoeneko hirugarrenak dira Euskal Ligan. Aste bukaeran partida bi jokatu zituzte: bihar, zapatua, Gasteizko Ruta de Europa taldea izango dute aurrez aurre, eta domekan Urrietako taldea. Bi partidak kanpoan izango dituzte.

PARTIDUAK

FUTBOLA

Anaitasuna-UDA

Preferentea.

Zapatua. 16:30. Azkoitia.

UDA-Beasain

Infantilak.

Zapatua. 10:00. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.-Bergara

Bigarren mailako helduak.

Zapatua. 18:00. Iturrigorri.

Beasain-Aretxab.

Lehenengo mailako helduak.

Zapatua. 11:00. Beasain.

EMAITZAK

FUTBOLA

Izotzaren ondorioz bertan behar ziren Ibarra futbol zelaian jokatzekoak ziren partidu guztiak.

Eibartarrak 4 UDA 2

Gazteak. Ohorezko liga.

Elgoibar 2 UDA 1

Infantilak. Ohorezko liga.

PILOTA

Aretxab. 21 Goierri 22

Lehenengo mailako nagusiak.

Lazkao 22 Aretxab. 12

Bigarren mailako nagusiak.

Zumarraga 22 Aretxab. 14

Lehenengo mailako gazteak.

ARATUSTEAK 2005 GOITB-N

Nor zara zu?

ARATUSTEAK 2005
Saio bereziaEguaztenean, otsailaren 7an
21:30ean eta 23:00etan

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!



HURRETIK



Gorka Garai

Taxi gidarixe

Hiru hillebete dala hasi zan Gorka taxixaz gora eta behera. Oso gustora faten da herriz herri, eta jentiekien ez dau arazorik euki oin arte. Antzuolan egoten dan arren, ibarreko edozein herrittan topau geike Eskoriatzan bizi dan aretxabaletarra.

Noiz hasi zitzen taxixez lanien?

Denpora laburre daroiet lan honetan, hiru hillebete. Oso gustora egitten dot lan, errepidien ibiltie asko gustetan jat eta.

Ze dauko ona taxi gidari lanak?

Jente mordue ezauketako aukerie emuten dust lanak. Eta, gainera, egun danak diferentiek izeten die. Kataien lan egindakue naz, eta badakit hori ez dala neretako.

Ze moduz fan dan astien egindeko edurtiez?

Txarto, bidiek ez die-eta bape ondo egon. Egun baten hiru ordu egin nittuen geldi San Prudentzion.

Haurduen euen norbait sekule eruen dozu ospitalera?

Bai, eruenda dauket. Baiñe ez pentsau bilddurtu nitzenik; izen be, Gurutze Gorrixen lan egindakue naz.

Musikarik jarten dutzezu bezeruei?

Bai, gaztiei batez be. Egubakoitz eta zapatu gabetan lan egitten dotenez, gazte mordue erueten dot. Ze gure dauen entzutie galdeketa dutziet normalien.

Gaztiek ondo portetan die taxixen?

Batzuek uste dauena baiño hobeto. 15 urtetik gorakuek erueten dittut, eta ez dot arazorik euki oin arte.

Norbait marieu jatzu eta botaka hasi?

Mutil bat larri eruen neuen behin. Baiñe ez euen botaka egin taxixien. Aillegau biherreko tokire aillegau, atie zabaldu eta orduen hutsittu euen barrukue.

Nora egin dozu biajerik luziena?

Belgikako mugaraino fan nitzen behin, Frantzia iparraldera.

Ze automobil dauketzu? Aldatuko zeuke?

Ez neuke aldatuko, oso gustora nabil neuriez. Peugeot 406 bat da, eta DVD, telebisiñue eta nabigatzaillie dauko.

Zenbatien behin garbiketetan dozu taxixe?

Astien behin. Bai kanpotik, baltza danez asko zikinketan dalako; bai barrutik be, eguakotx eta zapatuen lan egitten badot batez be.

Ze pentsetan jatzu puntu bidezko gidabaimena?

Lortu gure dauena ondo pentsetan jat, arriskuek txikiketie. Baiñe gauza batzuetan zorrotzegixek diela uste dot.

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

NIREBIDAIAHURA/ Marilu Madinabeitia

Cap de Creus, Girona / 2004ko abuztua

Marilu eta bere senarra mendizale petoak dira. Azken bost urteotan oporraldiak GR-11 ibilbidea egiten igaro dituzte. "Hondarribitik irten eta Pirinioetan zehar, Gironako Cap de Creusen amaitzen da GR-11", esan digu Mariluk. 47 etapatan banatutako ibilaldi luzea da, eta "guztia egiteko bi hilabete inguru behar izaten dira. Horregatik egin dugu guk bost urtean; alegia, ez geneukalako hilabete bi hartzeko aukerarik", azaldu du.

"Ibilbideko ikurrari jarraituz eta mapak irakurriz mendiz mendi joan gara; azkenekoz, iazko San Joan astean eta abuztu-ko lehenengo astean". Aretxabaletarrak adierazi duenez, garrantzitsua da eguraldi ona egiten duen garaian joatea: "Izan ere, Pirinioetan eguraldi txarreakin oso zaila da bidean aurrera egitea".

"Ikurrak jarraituta galtzeko aukera gutxi dago normalean", aitortu digu Mariluk, "baina lehenengo urtean galdu egin ginen. Etapa bat Elizondon amaitzen zen, eta gutxi geratzen zitzaigun helmugaraino. Baina garai hartan, Nafarroa aldeko ikurrak egoera txarrean zeuden. Gainera, Elizondo inguruan ez daude GR-11ko arrastoak soilik, frantsesek erabiltzen dituztenak ere aurki daitezke. Halako baten, bidean aurrera egin eta ordu eta erdira konturatu ginen okerreko



"Hondarribitik irten eta Pirinioetan zehar, Gironako Cap de Creusen amaitzen da GR-11"

"Ikurrak jarraituta galtzeko aukera gutxi dago, baina lehenengo urtean galdu egin ginen"

Gu lau ginenez, korrika igo ziren tokia hartzera. Hala ere, gure etapa ez zen hor amaitzen, eta, jakin zutenean, barreari eutsi ezinik eta lagun giroan bukatu ginen. Bilbotarrak zirela esan ziguten".

Z.V.M.



Laukotea orain dela bost urte hasi zen GR-11 egiten, baina Mariluk eta senarrak bakarrik bukatu zuten iaz.

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

PIENSOO SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko otsailaren 4a / 197. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarrigoiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Patatak errioxar erara, oilasko errea eta tarta, biharko herri bazkariko menua

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Bihar Inauteri-zapatua ospatzen da, eta Eskoriatzan egongo da zer egin. Herritarrek mozorrotuta, eta, besteak beste, herri bazkaria, gazteenzako pottoka eta zezen txikiak eta kintoen dantza izango dira. Martitzenean, herriko txikien txanda.

Atzo izan zen Urdelardero eguna Eskoriatzan. Halaxe hasi ziren 2005eko Inauteriak. Orain berriz, datozen egunetarako prestatzen ari dira eskoriatzarrak. Izan ere, parte-hartze handia duten jaiak dira Inauteriak.

Gaur, Santa Ageda bezpera izanik, herriko kintoak kalez kale ibili dira. Ohiturari jarraituz, Santa Ageda eguneko kantuak abesten aritu dira, eta, bide batez, herriko kaleak alaitu dituzte. Bihar, berriz, Santa Ageda eguna eta Inauteri-zapatua ospatuko dituzte Eskoriatzan. Kaleak animatzeko asmoz Bizkarra txaranga irtengo da 13:00etan. Ondoren, herri bazkaria patatak errioxar erara, oilasko eta tarta izango da menua. Pilotalekuan elkartuko dira bazkarirako. Arratsaldean, gazteen-



Hainbat gairi gaitzespena egiteko ere balio dute Inauterietako mozorroek.

tzat pottoka eta zezen txikiak egongo dira, 17:00etan, pilotalekuan. Herriko kintoen txanda izango da ondoren. Izan ere, 19:00etan dantza egingo dute herriko plazan.

INAUTERI MARTITZENA

Martitzenean, hilak 8, umeen txanda izango da. Eurentzako jaialdia antolatu dute. 11:00etan herriko plazan batu, eta, musikaz lagun-

duta, dantzatu eta kantatu egingo dute; eta ondoren, txistorra jana izango da. Arratsaldean, txokolatea banatuko diete eta ondoren, Kukumarroen bisita izango dute.

Gaur, herriko kintoak kalera irten dira Santa Ageda eguneko kantuak abestera

Mozorroen kalejira izango da bihar arratsaldean; gauean, Joselu Anaiak arituko dira plazan

Umeentzako ekintzak martitzenean: jaialdia, txokolate jana eta Kukumarroak

Euskal irakaskuntzaren aldeko hitzaldia HUHEZIKo fakultatean

Z.V.M.

Eskoriatzako fakultatean euskal irakaskuntza bultzatzeko ekitaldiak egin dituzte. Martitzenean, esaterako, EHUn Arkitektura ikasten ari diren bi gaztek euskaraz ikasi ahal izateko euren fakultatean egiten ari diren borrokaren bideo bat jarri eta hitzaldia eskaini zuten.

Martitzenean euskal irakaskuntzaren aldeko ekimena egin zuten HUHEZIn, Ikasle Abertzaleak taldeak antolatuta. Horretarako,

Donostian Arkitektura ikasten ari diren bi ikaslek bideo bat jarri eta hitzaldia eskaini zuten. Euskaraz ikasi ahal izateko borroka hasi zuten Arkitekturako hainbat ikaslek Gipuzkoako hiriburuan. Arkitektura ikasketek irauten duten sei urteetatik bi bakarrik dira euskara hutsean. EHUK konpontzeko bidean zegoela esan zien. 2001. urtean matrikula egitera joan eta euskarazko ikasgai gehiago zituztela ikusi zuten. "Poztu egin ginen, baina okerren bat zegoela eta eskolak gaztelaniaz eman behar zituztela esan ziguten ondo-

ren", eman zuten aditzera Hodei Zenikaonandia hizlariak. Hala hasi zen euren borroka.

HUHEZIKo Ikasle Abertzaleak taldeko Liher Gonzalezen esanetan, Eskoriatzako fakultatean oraindik badago zer hobetu: "Izan ere, etorkizunean euskaraz lan egin gura badugu, gure jakintza-aren oinarriak euskarazkoa izan beharko luke, eta gaur egun ez da horrela".

Zenikaonandiaren esanetan, originaltasunez molde berriak asmatu eta emaitza onak lor daitezkeela erakutsi gura izan dute.



Hitz egin bitartean, zenbait ekimenen irudiak ikusi zituzten ikus-entzuleek.

Z.V.M.

ASTELEHENEAN IREKITZE EKITALDIA EGIN ZUTEN

Inauguratu dute 408 metro koadroko osasun etxea

Z.V.M.

Astelehenean egin zuten Gorosarri plazan dagoen osasun etxe berriaren irekiera ekitaldia. 442.500 euroko inbertsioa egin du Osakidetzak Eskoriatza-ko lokal berria egokitu eta hornitzeko. Herritarrei orain arte eman ezin izan dieten zerbitzua eskaintzea gura dute osasun etxe berriaren bidez.

Astelehenean inauguratu zuten Eduardo Gorosarri plazan dagoen osasun etxe berria. Bertan izan ziren, besteak beste, Juan Carlos Bengoa alkatea eta Josu Garaik Osakidetza-ko zuzendari nagusia, Euskal Osasun Zerbitzuko beste hainbat kiderekin batera. Herritarren beharrei hobeto erantzuteko egokitu dituzte Gorosarri enparantzako lokalak, eta, hala, zerbitzu hobea eskainiko diete eskoriatzarrei aurrerantzean.

Herriko bi dantzari aureskua dantzatzu eman zioten hasiera inaugurazio ekitaldiari. Egoitzara sartu aurretik, zinta moztu zuten agintariak. Bisitaldi gidatua egin zuten bertaratutako guztiek, eta osasun etxe berriaren txokoak ikusi zituzten.

EGOITZA BERRIAREN ABANTAILAK

Orain arte Santa Ana auzoan egon den osasun etxea baino handiagoa da Gorosarri plazakoa, eta zerbitzu hobea emateko dago pentsatuta. Toki txikia dago Santa Ana kalean ondoz ondo dauden bi lokaletan, eta "oraingoak herriari eta herritarrei onurak" ekarriko dizkiela uste du Juan Carlos Bengoa alkateak.

"Sartu bezain laster erabiltaizek eroso sentitzeko asmoz, hormak kolore alaiekin margotu dituzte, esaterako", eman zuen aditzera Osakidetza-ko zuzendari nagusi Josu Garaik. Izan ere, kolore harmoniatsuekin margotu dituzte kontsulta gelak eta korridoreak.

Azpiegitura eta hornikuntza aldetik alde handia dago lehengo eta oraingoaren artean. Egoitza berriak hainbat gune ditu. Sarrean, Harrera Gunea aurkituko dute



Dantzariak aureskua egin zuten inaugurazio ekitaldian.

herriarrek. Osasun etxeke eskumako hegalean, Medikuntza Orokorreko gunea dago. Bi kontsulta gela daude bertan, itxarongela eta erizaindegirekin.

Jarraian, Pediatria Gunea dago. Pediatria gela bat, erizaindegia eta itxarongela ditu gune horrek. Bestalde, eskumako hegalean larrialdi gela kokatu dute.

Ezker hegalean, berriz, Emakumearen Arreta Gunea dago, emaginarene kontsulta, itxarongela eta taldeko jarduerak egiteko gela batekin. Besteak beste, haurdunaldiko gimnasia egiteko aukera izango dute eskoriatzarrek bertan.

ZAZPI PROFESIONAL

Era berean, Osakidetza-ko egoitzan diharduten profesionalak lan handia egiten dute; izan ere, datuen arabera, zazpi langile ari dira herriko osasun etxean herritarrei beharrezko zerbitzua eskaintzen. Familiako mediku bi, pediatra bat, eta administrazio-laguntzaile bat dira bertan lanean dihardutenak. 13.099

kontsulta orokor izan zituzten 2003an: 3.328 pediatria kontsulta, 10.609 erizaindegian eta 903 kontsulta izan zituen emaginak.

Egoitza berriarekin, lantaldeak era koordinatuagoz lan egiteko aukera izango du adituen esanetan. Hala, Lehen Mailako Arretarako Taldea toki bakar batean egongo da, eta ez, lehen zegoen bezala, Santa Ana auzoko 19. zenbakiko bi lokaletan banatuta.

442.500 EUROKO INBERTSIOA

Euskal Osasun Zerbitzuaren ekimenez ireki da egoitza berria, eta Udalaren laguntza izan du horretarako; Gorosarri plazan dagoen lokala Udalarena da, eta osasun etxe berria jartzeko tokia utzi dio Osakidetzari. 408,27 metro koadro diren arren, 347,48 izango dira erabilgarriak. Bestalde, dirua Euskal Osasun Zerbitzuak jarri du, eta 442.500 euro inbertitu ditu; horietatik 370.000 euro lanak egiteko eta 72.500 euro osasun etxea hornitzeko erabili dituzte.

TELEFONOJAKINGARRIAK

Table with 2 columns: Service name and phone number. Includes categories like ESKORIATZA, BESTELAKOAK, and OHARRAK.

OHARRAK

IKASTAROAK KZGUNEAN

Otsailaren zehar, hainbat eskola emango dituzte herriko KZGunean. Datorren egubakoitzean, hilak 11, Postal bat bidal ezazu ikastaroa 16:00etatik 18:00etara.

SASKIBALOA

Bihar zapatua, Eskoriatza KE eta Colegio Basauri taldeen arteko norgehiagoka. Kiroldegian izango da, 18:00etan.

JOSELU ANAIK

Bihar, zapatua, 19:30etik 21:00etara eta 23:00etatik aurrera Joselu Anaiekin dantzaldia egongo da herriko plazan.

KINTOEN DANTZA

Domekan 19:00etan herriko kintoek dantza egingo dute herriko plazan.

INAUTERI MARTITZENA

17:00etan Kukumarroak irtengo dira kultura etxetik. 18:00etan, berriz, Telmah taldearekin dantzaldia umeentzat plazan.

LABUR

Bost euroko kuota Olazar elkarte-ko kideek otsailaren...

Olazar erretiratuen elkarteak bazkideei adierazi die otsailaren bost euroko kuota ordaindu beharko dutela. Datorren astelehenean hasi eta egubakoitzera bitartean Olazar elkartearen bulegora joan beharko dute kideek.

Goizez irekiko dute elkarteak, 11:00etatik 12:30era. Diru-sarrerara egiteko, baina, beharrezkoa izango dute erretiratuak txartela eramatea. Beraz, otsailaren 7tik 11ra bitartean izango da kuota ordaintzeko aukera.

Bestalde, Olazar elkarteak 2005 eta 2006ko zuzendaritzako kideak aurkeztu ditu: Pedro Maria Armendariz izango da Olazarko lehendakaria, Pedro Altuna diruzaina eta Felisa Oruna idazkaria, besteak beste. Lan txukuna egiteko burubelbarri arituko dira.

Zubillagako hiltegiari buruz jardunaldiak otsailaren 8 eta 9an

Zubillagako Hiltegiaren eta Debagoieneko harakin eta ganadu-zaleen etorkizuna jardunaldiak egingo dituzte Eskoriatzan martitzen eta eguaztenean Ibarraundi jauregian. Askotariko iritzia entzungo dira. Izan ere, hiltegia itxtearen alde eta kontra dauden pertsonek hartuko dute parte. Besteak beste, German Berezibar hiltegiako gerentea, Mankomunitateko Landa Garapen elkarte-ko Mari Karmen Iturbe eta EHNEko Eneko Karreara arituko dira hizlari lanetan.

Nahiz eta Eskoriatza-ko Udala bere garaian hiltegia itxtearen aurka azaldu zen, herritarrei informazioa eman gura die bai alde eta baita kontrako iritzia eskainiz. Hizlari bakoitzak hamabost minutu izango ditu bere ideiak defendatzeko. Horren ondoren, mahai-inguru bat egingo dute entzuleen galderei erantzunez. Bi egunetako ekitaldiak 18:00etan hasiko dira.

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77 Zure Zerbitzura



FAGOR logo

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, S. Coop.

Torrebaso 7 20540 Eskoriatza Gipuzkoa SPAIN Tel: +34 943 719 000 Fax: +34 943 719 001



Aurten hamabosgarren aldiz egingo dute bidaia herriko emakume taldeko kideek

Z.V.M.

Herriko emakume taldeak (Sorginak) bilera egin zuen martitzenean. Bertan, hainbat erabaki hartzen hasi ziren; besteak beste, urteko bidaia nora egin. Zerbait berezia egin gura dute; izan ere, aurten hamabosgarren aldiz egingo dute bidaia.

Martitzen iluntzean elkartu ziren herriko *sorginak* urteko lehenengo bilera egiteko. Bi gai nagusi izan zituzten mahai gainean.

Urtero bezala, Martxoaren 8a ospatzeko asmoa dutela eman du aditzera herriko emakume taldeak. Martitzena izango denez, martxoaren 5ean elkartuko dira

mahaiaren bueltan, urtero bezala, Gure Ametsa jatetxean. Dagoeneko eman daiteke izena; horretarako, Labidea dendara jo behar dute interesatuek.

Bestalde, urteko bidaiari buruz mintzatu ziren. Aurten berezia izango dela eman digu aditzera Amaia Olabe *sorginak*: "Aurten bidaia antolatzen dugun hamabosgarren urtea izango da. Horregatik hainbat aukera eman gura dizkiegu kideei".

Azkenik, 2005. urtean ikastaroaren bat antolatzeko asmotan dabilta. Zenbait urtean askotariko eskolak hartu dituzte *sorginek*. Botatuko ideien artean, yoga egitea zegoen, esaterako. Hala ere, otsailaren 22an berriz elkartuko dira guztia zehazteko asmoz.



Urtero antolatzen duten bidaia *sorginek*; argazkian iaz Leonera egin zuten txangoa.

Martxoaren 5ean ospatuko dute aurten Emakumeen Eguna herriko 'sorginek'

Hilaren 22an beste bilera bat egingo dute, besteak beste bidaia nora egin zehazteko

Euskaltzaindiak 'Leintz Gatzaga' marratxorik gabe idaztea zehaztu du

Aste honetan, Euskaltzaindiak urte askoko lanaren ondoren, Gipuzkoako hainbat tokiren izendapenari buruz hartutako erabakiaren berri eman du. Gipuzkoako herrien gaur egungo izen ofizialak eta herritarren izenak arautu ditu Euskaltzaindiak, astelehenean aditzera eman zuen moduan.

Horien artean agertu da Leintz Gatzagari buruzko ebazpena. Izan ere, orain arte marratxoarekin idatzi behar zela zioen. Euskaltzaindiak aditzera eman duenez, aurrerantzean marrarik gabe idatzi behar da herriaren izena. Euskaltzaindiak Euskal Herriko herri-izendegiak egiten ditu beste hainbat lanen artean.

Euskaltzaindiko Onomastika batzordea arduratzen da horretaz. Hogeita bost urtez aritu dira batzordeko kideak herri-izendegia zehazten, eta, azkenean, Gipuzkoakoa astelehenean, urtarilaren 31n, aurkeztu zuten Foru Aldundian. Ez dute aldaketa handirik egin; hala ere, aintzat hartu beharrekoak dira. Herriari dagokion izena gidoitxorik gabe idaztea arautu du azken lan horretan Euskaltzaindiak.

Azkenik, aditzera eman duteenez laster kaleratuko dute izendapenei dagozkien liburuxka. Gipuzkoakoa azken lana izan da. Izan ere, dagoeneko eginak dituzte Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoko izendegiak.

LABUR

Gaztetxoak 'altxorraren bila'

Bihar ospatuko da Leintz Gatzagan Inauteri eguna. Hala, alde batetik GURELek antolatutako ekimenak izango dira nagusi herrian. 17:00etan hasita, *altxorraren bila* ibiliko dira; eta pilotalekuan hainbat jolas antolatuko dituzte, gazteenentzako. Gauean, berriz, herritar guztiak elkartera gerturatuko dira mozo-erroak soinean dituztela, eta, beste jaki batzuen artean, frikatxa, arkumea eta postrea hartzeko aukera izango dute. 21:00etan izango da hitzordua. Ondoren, dantzaldia izango dute Garrojauregiko lehenengo solairuan.

Irakurketa eta bidaiatzeko ikastaroak eskainiko dituzte otsailean KZGunean

Azkenaldian Leintz Gatzagako KZGunean ez da eskolarik antolatu. Horren arrazoia, oso jende gutxi hartzen zuela KZGuneak antolatutako ikastaroetan. Otsailean zehar, berriz, Aitor Madrid irakasleak bi ikastaro eskainiko ditu aditzera eman duenez.

Lehenengoa hilaren 14an izango da, egubakoitza. *Zure egunkaria irakurri* izango da egun horretako eskola. 16:00etatik 18:00etara irekita egongo da gura duenak egunkaria Internet bidez egunkaria irakurtzen ikasteko.

Bestalde, hilaren 28an bigarren eskola emango du eta *Asteburu bat Euskal Herrian* izango da jorratuko duen gaia; erreserbak egiten ikasteko aukera izango dute interesatuek bigarren ikastaro horretan. Bi egun horietan Interneten ibiltzeko aukera izango dute gatzagarrek, beti bezala, doan.

Aitor Madrid irakasleak aditzera eman duenez, "jendea ordenagailuak erabiltzera animatzea gurako nuke, eskolak interesgarriak direlakoan bainago".

**JAR EZAZU
HEMEN
ZURE PUBLIZITATEA**

Ze barri?



Pausoka
HAUR ESKOLA

2005-2006 ikasturtea

izena ematea:
otsailaren 14tik 28ra

Ordutegia: 09:00etik 11:00etara eta 16:00etatik 18:00etara
BELORRIETA 8an GAUDE. 943 77 03 77



TALDE EGOKITUAK

- 0tik 3 urtera bitarteko haurrak talde egokituetan

ORDUTEGI ZABALA

- Goizeko 7:30etik 18:00ak arte
- Ordutegia moldatzeko aukera

JANGELA ZERBITZUAK

- Bertan gertatutako janaria
- Haur bakoitzari egokitutako dieta

EGUTEGI ZABALA

- Egutegi eskolarraz gain, Gabonak, Pazko astea eta uztailaren 24rarte zabalik.

LOGELA


**Txiki txikitatik
jolasten heziz**



Aretxabaleta okindegia

*Inauterietan giro
onena!*

Basabe 2. Tel. 943 77 00 81
Loramendi 6. Tel. 943 77 17 19



EGUZKIGRAF

inprimategia

*Aratusteak
Ihauteriak
Inauteriak*

Ondo pasa!



Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com